



NIPPON GASES ESPAÑA, S.L.U., BARAKALDO

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

NIPPON GASES ESPAÑA, S.L.U.

Buen Pastor kalea s/n







48903 – Lutxana, Barakaldo (Bizkaia)

NIPPON GASES ESPAÑA S.L.U. establezimendua (Lutxana, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena entregatu dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, artikuluko 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.




Establezimenduaren jarduera

Gas industrialen fabrikazioa

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Hidrogenoa	H220: Gas guztiz sukoia	
Azetilenoa	H220: Gas guztiz sukoia	
Oxigenoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea	
Propilenoa	H220: Gas guztiz sukoia	
Metanoa	H220: Gas guztiz sukoia	
Oxido Nitrosoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea.	



Gasoila	H226: Likido eta lurrun sukoiak.	
Nahasketa sukoiak	H220: Gas guztiz sukoa	
Konburenteen nahasketak	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea.	

Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrak ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko abisuak, Babes Logistikorako Taldearen ibilgailuetako megafonia bidez. Normalean, megafoniaz egiten dira (megafonia finkoa edo mugikorra izan daiteke). Abisu horiei esker, biztanleek zuzenean jakingo dute zein diren berehala aplikatu behar dituzten segurtasun-neurriak.
- Hedabide sozialak (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irratia, tokiko TV kateak).
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren sare sozialak (X sare soziala, Youtube...).
- 112 SOS Deiak app-aren bidez, herritarrak zuzenean komunikatu ahal izango dira Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin (112 SOS Deiak), 112 telefono zenbakira dei eginez, edo, ezin bada, gor-mutuek ahotsik gabeko sarbidea eta irisgarria izanez.
- Gainera, alderantziz, 112 SOS Deiak app-ak istripuaren berri emango du kaltetutako herritarren gailu mugikorren bidez, autobabeserako jarraibideak adierazita.

Azken ikuskapena

2020ko ekainaren 24an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:



Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Donostia kalea 1

01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina

01010 Vitoria – Gasteiz